



IRIZPEN ZK.: D16-022

EUSKAL MERKATARIEN KONFEDERAZIOARI HAINBAT DATU LAGATZEARI BURUZ UDAL BATEK EGINDAKO KONTSULTAREN GAINKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2015eko martxoaren 17an udal baten idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazkia goian adierazitako gaiari buruzkoa zen.

BIGARRENA: Idazkiak honakoa adierazten du:

“Udalari esan diote honi atxikita doakizuen lankidetzaz hitzarmena izenpetzeko. Bertan proposatzen da merkataritza elkarte bati udal erroldako hainbat datu lagatzea bereizita, eta tartean helbidea ere bai. Hona nire kontsulta:

- Dokumentu hori datu pertsonalak lagatzeko eskatzen ari da, nahiz eta bereizita eskatu?*
- Zilegi da biztanleen udal erroldako datuak erabiltzea horretarako, nahiz eta datuak bereizita egon?*
- Ukitutako herritarren adostasun behar da horretarako?”.*

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritzia eskatu dute, argitzeko, ea datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearekin bateragarria den, kontsulta egin duen udalak, datu pertsonal batzuk lagatzea Euskadiko Merkatarien Konfederazioari (Euskomer). Kontsultari atxikita aurkeztu dute bi aldeek izenpetu nahi duten lankidetzaz hitzarmenaren zirriborroaren kopia bat, eta hitzarmenaren I. Eranskina.

Irizpenean ebatzi behar den lehenengo alderdia da ea eskatu dituzten datuak datu pertsonalak diren, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege



Organikoan (DBLO) xedatutakoaren arabera. Eta DBLOren 3 a) letrak datu pertsonala zer den definitzen du: *“pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio”*.

Gainera, DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1. artikulua honakoa xedatzen du: *“Bere nortasun fisikoari, fisiologikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko edozein informazioaren bidez zuzenean edo zeharka identifika daitekeen pertsona oro. Pertsona fisiko bat ez da identifikatzeko modukotzat joko baldin eta identifikatzeko proportzioz gaindiko epeak edo jarduerak behar badira”*.

Datu pertsonalen tratamenduaren arloan pertsona fisikoak babesteari buruzko eta datu horien zirkulazio libreari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE Zuzentarauaren 2 a) letrak ere datu pertsonala zer den dio: *“identifikatuta dagoen edo identifikatu daitekeen pertsona fisiko («interesdun») bati buruzko datu guztiak; pertsona bat identifikatzeko modukoa dela esango da, zuzenean zein zeharka, bere identitatea zehaztu daitekeenean, eta, batez ere, identifikazio-zenbaki baten bitartez edo pertsona horren berariazko ezaugarri baten edo batzuen bitartez, bere identitate fisikoa, fisiologikoa, psikikoa, ekonomikoa, kulturala edo soziala agerian gera daitekeenean”*.

Azken finean pertsona bat identifikagarria den ala ez jakiteko, kontuan hartu beharko da tratamenduaren arduradunak edo beste edonork dena delako pertsona identifikatzeko, eskuartean izan ditzaketen baliabide multzoa nolakoa den.

Horrekin lotuta, honakoa ebatzi zuen Auzitegi Nazionalaren 2013ko uztailaren 9ko epaiak (Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 1. sekzioa): *“Datu bat datu pertsonala dela esateko (eta ez datu disoziatua), ez da beharrezkoa izango datua pertsona jakin batekin guztiz bat etortzea, nahikoa izango da ahalegin handiegirik egin gabe dena delako pertsona hori identifikatzeko balio badu. Auzitegi Nazionalaren 2008ko apirilaren 24ko epaiak ere (Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 1. sekzioa) gauza bera esan nahi du zera esaten duenean: “Orain arte auzitegiek esan izan dute pertsona fisiko bat identifikagarria dela legearen ondorioetarako, baldin eta erraz eta ahalegin handirik egin gabe lortzen bada datuak pertsona horrekin lotzea”*.

Kasu honetan, aurkeztu diguten dokumentazioa aztertu eta gero, argi ikusten da, proiektatutako hitzarmenak herriko biztanleak erraz identifikatzea ahalbideratzen duela. Hitzarmenak dioenez, biztanleen udal erroldan dauden herritarren hainbat datu lagatzea nahi dute: sexua, adina, ikasketa maila eta bizilekuaren helbidea; eta horiez gain, ibilgailuen erroldako hainbat datu ere bai: mota, zilindro-bolumena eta helbidea (uste dugu ibilgailuaren jabearen helbidea dela).

Beraz, argi dago datu horiek tratatuz gero, erraza izango dela herritarrak ahalegin handirik gabe identifikatzea, bai eta, herritarren profilak egitea ere. Horregatik, esan beharrean gaude eskatu dituzten datuak datu pertsonalak direla, eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren babespean daudela.

II

Datu-lagatzeen erregimen orokorra DBLOren 11. artikuluan dago xedatuta, eta 1. zenbakiak dio arau orokorra dela horretarako ukituaren adostasuna behar dela: *“Tratatu*



beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da”.

Nahiz eta arau orokorrak esan adostasuna beharrezkoa dela, arauak salbuespenak ditu, eta 11. artikuluko 2. letran daude jasota. Aipatzekoa da a) letra: *“Lege batek baimentzen badu lagapena”.*

Kasu honetan eskatu dituzten datuak udaleko bi fitxategi hauetan daude jasota: biztanleen udal erroldan eta “ibilgailuen erroldan”; beraz, bi fitxategien lege erregimena aztertu beharko dugu.

Udal erroldari buruzko lege erregimena eratzen dute batez ere Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 15., 16. eta 17. artikuluek. Irizpen honen ondorioetarako, aipatzekoa da 16. artikulua, honakoa xedatzen baitu:

“1. Udal errolda udalerri bateko biztanleak jasotzen dituen administrazio erregistroa da. Bertako datuak udalerrian bizilekua izatearen eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fedemaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako.

(...)

3. “Erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko interesdunaren adostasunik gabe, datu horiek nahitaezkoak izan behar dira administrazio horiek euren eskumenez baliatu ahal izateko, eta bakar-bakarrik lagako zaizkie helbidearen edo egoitzaren gaineko datuak ezinbestekoak badira”.

TAOLen 16.3 artikulua argi dio erroldako datuak lagatzeko bete beharrezko baldintza dela lagatzailea eta lagapen-hartzailea biak administrazio publikoak izatea. Eta kasu honetan ez da halakorik gertatzen lagapen-hartzailea enpresa bat delako.

Beraz, esan behar dugu ez dagoela erroldako datuak laga ahal izateko DBLOren 11.2 a) letrak eskatzen duen lege gaikuntza, ukituek adostasunik adierazi ezean.

III

Azkenik, “ibilgailuen erroldan” dauden datuen tratamendua aztertu behar dugu. “Ibilgailuen errolda” egiteko, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, hau da, “zirkulazio zerga” delakoa erabiltzen da, eta bertan dauden datuak zergadunen datuak dira.

Horrek esan nahi du tratatu nahi diren datuak zerga arloko fitxategi batekoak direla, eta halako datuek babes erregimen berezia dute, indartuagoa. Ikusi Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 92. artikulua xedatzen duena: *“Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrek ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, (...).”*

Era berean, artikulua dio noiz den zilegi datuak lagatzea, eta zerrenda bat dauka kasu tasatu eta zehatzekin. Eta horien artean ez da agertzen kontsultan aipatzen dena datu lagatzea bezalakorik.



ONDORIOA

Euskadiko Merkatarien Konfederazioari datuak lagatzea hitzarmen proiektuan jasotako moduan, eta ukituen adostasunik gabe, ez dator bat datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko apirilaren 14an